

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila**

**Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren 535/2018 FORU AGINDUA, urtarrilaren 19koa. Horren bitartez erabaki da Otxandioko 1 S.A.U.I. ABC Industrialdeko Plan Partziala aldatzeko ingurumen txosten estrategikoa egitea.**

**1. Aurrekariak**

Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2.c. artikulua-rekin bat eginez, Otxandioko 1 S.A.U.I. ABC Industrialdeko Plan Partzialak ingurumen ebaluazioko prozedura sinplifikatua gauzatu behar du.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko erregistroan 2017ko irailaren 20an sartu zen Lurraldearen Kohesiorako zuzendari nagusiak bidalitako idazkia. Horrekin batera atxiki zen Otxandioko S.A.U.I. ABC 1. Industrialdeko Plan Partziala Aldatzeko ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskariari zegokion txostena. Txostenarekin batera dokumentazio hau ere helarazi zuten:

- Plan Partzialaren aldatzeari buruzko agiri urbanistikoa, 2017ko ekainekoa.
- Ingurumen agiri estrategikoa, 2017ko uztailakoa; agiri horren egilea behar bezala identifikatuta zegoen Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikuluan jasota dagoen bezala.

2017ko urriaren 5ean Otxandioko Udalean jaso zuten Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzuaren ofizioa, eta horren bitartez eskatzen zen jasotako dokumentazioan identifikatutako bi akats zuzentzeko. Akats bat uholdeen alorrean aplikatu beharreko araubidearekin lotuta zegoen, eta bestea kutsatutako lurzoruei buruzko araudiaren ingurukoa zen.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko erregistroan 2017ko urriaren 13an jaso zen Otxandioko alkatearen ofizioa, eta horren bitartez, ingurumen organoak detektatutako akatsak zuzendu ziren.

Ingurumen ebaluazioaren inguruko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen txosten estrategikoa hau igorri da. Txostenaren bidez, era berean, bete egiten da planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa-ren prozedura arautzeko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoa, hain zuzen ere, Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I. A eranskineko 9. atalean bildutako planen ingurumen ebaluazio estrategikoa-ren menpe jarri beharra kasuz kasu ezartzeari dagokionez.

**2. Planaren ezaugarriak**

Otxandioko S.A.U.I. ABC-ko 1. industrialdea BI-3542 errepidearen ondoan dago, Otxandiotik Barazarrera bidean. Leku horretan industria-jarduera dago 1984tik, baina 1990an onetsi zen behin betiko eremu hori arautzen duen Plan Partziala. Industriaren beharren ondorioz handitzeak egin behar izan dira gaur egun industrialdeak duen tamainara iritsi arte, eta tamaina hori ez dator bat eremua arautzen duen antolamendu urbanistiko xehearekin. Gaur egun, industrialdean dagoen bi enpresetatik batek handitze txiki bat behar du pinturen karrusel bat gordetzeko, eta beraz, 1990ean onetsitako Plan Partziala aldatu egin behar da.

Behar horri erantzuna emateko hiru aukera hauek daude:

- 0. aukera: Modu mugagabeen gaur egungo egoera luzatzea, gaur egun dauden irregulartasun urbanistikoak eta enpresa-mugak mantenduz.



- 1. aukera: Eraikuntzaren oinplanoaren okupazioa gehitzea, eta industriarako lur-zati pribatuen barneko aldeari aplikatu beharreko araubide urbanistikoaren egokitzea gehitzea.
- 2. aukera: Gaur egungo oinplanoaren okupazioa izoztea, baina egoera urbanistiko arautzea.

Indarrean dagoen xehatutako antolakuntza zuzenduko da eraikuntzak arautzeko. Eraikuntza horiek antolakuntzarekin bat egin gabe sortzen joan dira sektoreko 1. industrialdean, eta horrez gain, horiek handitzea ahalbidetu nahi da, lur-zati pribatuak gehiago okupatuko duelarik eta edonola ere ez delarik handituko eremu horretako eraikigarritasuna (1. aukera).

Instalazioak jada badauden pabilioien ondoan eraikiko dira, sektore industrialaren barne dauden lursailetan eta jada urbanizatuta daudenetan. Zehazki, 1. industrialdeko 1. lur-zatirako 1.129 m<sup>2</sup>-ko handitzea planteatu da, eta 2. lur-zatirako 478 m<sup>2</sup>-koa. Oinplanoak okupatzen duen lurzorua handitzeko aldatuko den Plan Partzialean eta Lurraldeko Sektore Planean (jarduera ekonomikoentzat eta merkataritza ekipamenduentzat lurzoru publikoa sortzeari buruzkoa) ezarritako aparkamenduen ratioa errespetatu beharko da, eta beraz, jarduketa urbanistikoaren barne dago industrialdeko aparkamendu publiko eta pribatuetako plazak berrantolatzea.

Era berean, indarrean dagoen Plan Partzialaren aldaketa aprobetxatuz, 1. industrialdea arautzen duten ordenantzei araubide osagarri bat gehitzen zaie, eta horren aplikazioa nagusiki eraikuntza-baldintzen menpe egongo da.

### 3. Egindako kontsultak

21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako eraginpeko administrazio publikoei egiten zaizkien aurretiazko kontsulten izapidean honako organismo eta erakunde hauek kontsultatu dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri-berroneratze Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondareko Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Bizkaiko Osasun Lurralde Ordezkaritza.
- IHOBE, Ingurumen Kudeaketaren Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.
- URA, Uraren Euskal Agentzia. Eusko Jaurlaritza.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa.
- Ekologistak Martxan.

Bestalde, eskuragarri jarri da espedientearen dokumentazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean.

Txosten hau eman den egunera arte erantzun hauek jaso dira:

- *Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ondareko Zerbitzua.*

Bere artxiboetan dagoen informazioaren arabera, Plan Partzialaren esparruan kalifikatutako edo inbentarioa egindako ondasun arkitektonikorik eta arkeologikorik ez dagoela jakinarazi du.



- *Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiko Ingurumenaren Iraunkortasunerako Atala.*

Zaritari dagokionez jakinarazi du jarduketak ez duela inolako eraginik, eta beraz, Ingurumen Agiri Estrategikoan deskribatutako neurri zuzentzaileak nahikoak direla ulertzen du. Ingurumen berrezarpenari dagokionez aholkatu du esfortzu bat egiteko industrialdea landa-paisaiaren barne integrazteko, eta horretarako, aprobe-txatzeko tokiko zuhaitzak sartzeko eta mendebaldeko hegala tokiko zuhaixka-for-mako espezieekin birlandatzeko aurreikusitako obrak. Honekin batera atxiki du BI-3542 errepidean, S.A.U.I. ABC-ren parean, zortasun eremu akustikoa mugatzen duen plano eta goizerako, arratsalderako eta gauerako soinu-mailen mapa.

- *Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiko Eskaria Kudeatzeko Atala.*

Planaren ingurumen arloarekin loturarik ez duten zenbait alderdi adierazten ditu, loturarik ez izan arren zuzendu beharrekoak direnak hain zuzen ere. Lehenengoak planteatutako aparkamendu-lerro batek BI-3542 errepidearen zortasun publikoko eremua ustez (agiriaren eskala dela-eta ezin da baieztatu) okupatu egiten duela adierazten du, eta beraz, zuzendu egin behar da. Bigarrenik, adierazi du araubide urbanistikoa derrigorrez gehitu behar dela Bizkaiko Errepideei buruzko Foru Arauan ezartzen den eraikuntza-lerroa errespetatzeko beharra. Hala, dagokion planoan marraztu beharko da. Azkenik, adierazten da araubide urbanistikoa jasota geratu behar dela aurreikusitako jarduketa guztien egikaritze materiala 1. industrialdean kokatutako sektore osorako sarbideak aurretiaz egikaritzearen menpe egongo dela.

- *Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.*

Plan Partzialari eragiten dion eremuan Kultura Ondarearen elementurik ez dagoela jakinarazten du.

- *IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.*

Azaldu du dokumentazioan agertzen diren lur-zati batzuetan kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak egin izan direla, bai Lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzko irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan aipatzen direnak, bai hori eguneratzeko zirriborroan agertzen direnak.

Hori dela eta, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoaren arabera, lurzoruaren kalitatearen aitopena bat bideratu beharko da, lege horren 23. artikuluko egoeretako bat gertatzen denean, adibidez, kutsatuta egon litezkeen lurretako instalazioak edo kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo dituzten lurzoruen kalifikazioa aldatzea. Horretarako, leku horretan edozein esku-hartze egin baino lehen, lurzoruaren kalitatearen ikerketa bat eta utzitako hondakinen, eraikinen eta induskatutako lurren kudeaketa egokia egitea eskatu daiteke.

Azkenik, adierazi du aldaketa ezartzen den lursailarako jarduerak egin direla Sozietate Publiko horrek irekitako espediente baten barruan.

- *Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua.*

Jakinarazi du jarduketa babestutako espazio naturalen saretik kanpo dagoela, ez dagoela eraginik erkidegoko interesa duten habitatetan, eta aldaketaren inguruan bizi diren mehatxatutako espezieei ere ez diela eraginik egingo. Hala ere, aholkatu du pabilioiak paisaia integrazteko jarduketak egin beharko lirartekeela, nahikoa handia den industrialdea baita, eta beraz, nagusiki landakoa den eta kalitatezko paisaia duen inguruan eragin bisuala duela.

#### **4. Planaren azterketa, 21/2013 Legearen V. eranskinaren eta 211/2012 Dekretuaren III. Eranskinaren irizpideak kontuan hartuta**

Ebaluatutako planari ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaion edo ez zehazteko, kontuan izan dira egindako kontsulten emaitza eta horri buruz 21/2013



Legearen V. Eranskinean eta Plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren III. Eranskinean jasotzen diren irizpi-deak. Nolanahi ere, analisi hau indarrean dagoen ingurumen ebaluazioko araudian ezarritakoaren ondorioetarako egiten da; horrez gain, beharrezkoak izan daitezkeen baime-nak, lizentziak eta/edo nahitaezko txostenak ere egin beharko dira.

Planaren ezaugarri dagokienez, jarduketan ez da planteatzen lurzoruak artifizial-tzea, eta beraz, jada aldatuta dauden lursailak erabiliko dira jarduera industrialak behar dituen handitzeak bertan egiteko. Aldaketa urbanistikoak ahalbidetuko duen handitzea tamaina txikikoa da gaur egungo industrialdearen barnean.

Ingurumeneko arazoei edo planarekin lotutako arrisku nabarmenei dagokienez, honakoak jorratu behar dira kutsadura akustikoaren, uholdeen eta lurzoru kutsatuen alo-rean.

Kutsadura akustikoari dagokionez, aldaketaren alorreko zarata-iturri nagusiak S.A.U.I. ABC-ko industria-jarduera bera eta BI-3542 foru errepidea dira, industrialdearen aurretik igarotzen baita.

Lehenengo kasuan, aldaketaren sustatzaileak aurkeztu duen ingurumen agiri estra-tegikoaren barne dago inpaktu akustikoari buruzko eranskin bat, eta bertan daude jasota industria sektoreko inguruko hamar puntuetan egin ziren neurketa akustikoetako emai-tzak. Neurketa horiekin ondorioztatu da soinuek ez dituztela gainditzen Euskal Autono-mia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan industria lurzorua nagusi duten lurraldeko sektoreentzat ezarritako balioak. Edonola ere, gai akus-tikoaren inguruko araudia bete beharko da, aplikatzeko gehieneko balioei dagokienez.

Bigarren kasua BI-3542 errepideak sortzen duen zaratari buruzkoa da, eta Azpie-gituretarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiko Ingurumen Iraunkortasuneko Atalak soinu-mailei buruzko planoak eman ditu (goiza, arratsaldea eta gaua L). Horietan ondorioztatu daiteke errepideak sortzen dituen zaratak edonola ere ez dituela urratzen etorkizunean garapen urbanistikoa egitea aurreikusitako lurzoru industrialaren sektorerako ezarritako kalitate akustikoari buruzko helburuak (70/70/60 dBA). Era be-rean jakinarazi du jarduketak ez duela inolako eragin akustikorik, eta beraz, nahikoak dira sustatzaileak ezarritako neurri zuzentzaileak.

Zaratari loturik adierazi behar da ingurumen agiri estrategikoak jasotzen duen era-ginpeko eremuko mugatze akustikoa zuzendu egin behar dela, eremu akustiko horretan etorkizunean garapen urbanistikoa egitea aurreikusita dagoenez, kanpoko espazioko bere kalitatezko helburua jada badauden eremu urbanizatuetakoa baino 5 dBA murriz-taileagoa izan behar baita, eta beraz, 70/70/60 dbA-koa izan beharko da, lurraldeko sektore horren erabilera industrial delako. Alderdi hori ere aldatu egin behar da S.A.U.I. ABC-ko 1. industrialdeko hirigintza arau espezifikoetako 42. artikuluan.

Lurzoru kutsatuei buruz adierazi behar da ingurumen agiri estrategikoak jasotzen duen bezala Plan Partzialean jasota dagoen eremu ia guztia Lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzko irai-laren 30eko 165/2008 Dekretuan jasota dagoela. Lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak adierazten duen moduan, autonomia erkidegoko ingurumen organoari dagokio lurzoruaren kalitatea zehaztea. Hori dela eta, leku horretan edozein jarduketa egin aurretik, lurzoruaren kalitatea aztertu beharko da, kutsadurarekin lotutako arriskurik ez dagoela bermatzeko. Horrez gain, utzitako honda-kinen, eraikinen eta indusketako lurren kudeaketa egokia bermatu beharko da, indarreko arategiak hondakinen arloan ezartzen duenaren arabera.

Gizakientzat edo ingurumenarentzat arriskutsuak diren alderdiei dagokienez, ingu-rumen agiri estrategikoan jasota daude Plan Partzialeko 1. industrialeko eremuan urez bete daitezkeen eremuak eta horien mugak, eta hala, hegoaldean Oleta ibaiaren mugakideak dira eremu horiek. Ez da planteatu jarduketarik ibai horren ibilguan, ezta bere lehentasunezko jario eremuan ere. Oleta ibaitik gertuen dagoen eremuari dagokionez (Plan Partzialaren eremuaren barne dago baina erabilera industrialeko lur-zatietatik kan-po) bueltatze-aldiko 10 urte igaro ondorengo uholdeetako orbana du, baina eremu horiek lagapeneko espazio publiko bezala mugatzen dira eta horietan ez da jarduketarik aurrei-



kusi. 1. industrialdeko 1. eta 2. lur-zatiei dagokienez, lehenengoa 100 urteko etorbidean urez bete daiteke, eta bestea 500ekoan. Kasu biak ere jada urbanizatutako eremuak dira, eta planteatutako handitzeen tamaina txikiak (jada badauden pabilioien ondoan) ez du ematen larriagotu egingo duenik inguruan jada badagoen urez betetzeko arriskua. Edonola ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeako Lurraldearen Arloko Planean (Isurialde Kantauriarra eta Mediterraneo) uholdeen aurkako babeserako araudian ezarritakoa beteko da, baita Ebroren Mugatzearen Plan Hidrologikoan zehaztutakoa uholdeen arriskua kudeatzeari dagokionez ezarritakoa ere, eta, hala, jada badagoen arriskua handitzea saihestuko da. Administrazio hidraulikoak bere aurretiazko administrazio baimenean zehaztu beharko ditu Plan Partziala aldatzeko aurreikusitako jarduketak gauzatzeko baldintzak.

21/2013 Legearen V. eranskinean zehaztutakoa kontuan hartuz eta bigarren alderdiari dagokionez (ondorioen ezaugarriei eta segur aski eraginpekoa izango den eremuari buruzkoa) adierazi behar da aurretik aipatutako ingurumeneko arazoez gain, ez dagoela jarduketa urbanistikotik eratorritako nabarmendu beharreko ingurumen eraginik. Kontsultatutako administrazio publikoetako txostenetan ez dira detektatu beraz nabarmendu beharreko ingurumen eraginik.

Ingurumenaren balioari eta zaugarritasunari dagokionez, ez dago bereziki kalitatezkoak diren edo ingurumenari dagokionez ahulak diren espaziorik. Nahiz eta aldaketaren barneko eremuetan erkidegoarentzat interesekoak (belarra mozteko altitude baxuko zelai pobreak eta pagadi azidofilo atlantikoak), eta lehentasunezkoak (*Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* baso alubialak) diren habitatak ere badauden, eremu horiek gune berde eta kirol gune sozial bezala mugatuta daude, eta horietan ez dago aurreikusita inolako eraikuntza jarduera edo jarduketarik, eta beraz, horiek ez dute eraginik jasango. Gauza bera gertatzen da Oleta ibaiaren ibilguarekin eta ibaiertzekin eta ibai horrekiko paraleloki igarotzen den korridore ekologikoarekin, ekialdetik mendebaldera Plan Partzialaren barneko gunea igarotzen duenarekin hain zuzen ere.

Aldaketa urbanistikoa planteatzen den eremuarentzat garrantzia duen alderdietako bat S.A.U.I. ABCko industria-pabilioiek paisaian duten eragina da. Pabilioi hauek tamaina handia dute eta nagusiki landakoa den eremuan, kalitate bisuala duenean, kokatuta daude. Egin diren handitzeekin, eraikuntzek gehitu egin dute intrusio bisuala. Horri buruzko informazioa eman dute Bizkaiko Foru Aldundiaren Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak eta Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiko Ingurumenaren Iraunkortasunerako Atalak. Aparkamenduak eta eremu industrial berriz ere antolatzea sektore industrial paisaian hobeto integratzeko aukera bat da, eta hala, poligonoaren 1. eta 2. lur-zatiak inguratzen dituzten loreztatutako espazioak hobetzea planteatu daiteke, hain zuzen ere tokiko zuhaitz eta zuhaixka espezieak landatuz.

Amaitzeko, aldaketa zehatzak ekarriko dituen ondorioen ingurumen jarraipenari dagokionez, ikuskapenaz arduratzen den organoaren (Otxandioko Udala) eginkizuna, funtsean, ingurumen txosten estrategikoan eta ingurumen agiri estrategikoan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea izango da. Udalak Ingurumen Organo honi planaren ingurumen ondorioen jarraipenari buruzko emaitzak bidaliko dizkio eta Plan Partziala behin betiko onartzen den unetik urtebete igaro ondoren hasiko da. Aldizkakotasuna urtekoa izango da. Ingurumen agiri estrategikoaren barne dagoen aldaketaren ingurumen jarraipenerako aurreikusitako neurrien atala osatu egin beharko da paisai integratzioko jarduketan egikaritzeko jarraipen-mailarekin eta ezarritako bisualki hobetzeko helburuen betetze-mailarekin.

## 5. Ondorioa

Txosten honetan aipaturikoa kontuan izanik, eta eginiko ingurumeneko ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren eta 21/2013 Legearen V. eranskinean eta 21/2012 Dekretuaren III. Eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorritik egindako analisiaren arabera, ez da aurreikusten Otxandioko S.A.U.I. ABC-ko 1. Industrialdeko Plan Partzialaren aldaketak ondorio kaltegarri nabarmenik izango duenik. Hori dela eta, ez da beharrezkotzat jotzen 21/2013 Legearen II. tituluko I. kapituluko 1. sekzioan ezarritako ohiko ingurumeneko ebaluazio estrategikoa izapidetzea.



Eraginpeko administrazio publikoei kontsulta egin zeneko fasean jasotako txostenen eta egindako ingurumen balorazioaren arabera, sektoreko araubide urbanistikoan honakoak gehitu beharko dira:

- S.A.U.I. ABC-ko 1. industrialdeko urbanizazio-proiektuak industrialdea osatzen duten pabilioien paisaia hobekuntzarako jarduketak jasoko ditu, eta hala, aurreikusi egin beharko da tokiko zuhaitz eta zuhaixka espeziekin landaketak egitea eraikuntzen integrazio bisualari laguntzeko.
- Industria sektoreko hondakin-urak harazteari dagokionez, sistema kolektorea baldin badago, isuriak sistema horri lotuko dira azpiegituraren kudeatzaileak egin beharrekoak zehaztu aurretiko tratamendu bezala. Sistema hori ez baldin bada, administrazio hidraulikoak zehaztuko du isuriari eman beharreko tratamendua bere aurretiazko baimenean.

Horrenbestez, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapenari, Antolaketari, Araubideari eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauaren 39.i) eta 67.1. artikuluetan eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren egitura organikoa arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 23ko 70/2017 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz, ondorengoa luzatzen da:

#### EBAZPENA

*Lehenengoa:* Otxandioko S.A.U.I. ABC-ko 1. industrialdeko Plan Partzialaren Aldaketaren ingurumen txosten estrategikoa egitea.

*Bigarrena:* Ebazpen hau argitara ematea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren webgunean.

*Hirugarrena:* Ebazpen honen berri ematea Otxandioko Udalarri.

*Laugarrena:* 21/2013 Legearen 32.a artikulua ezarritakoa betez, organo eskudunak (Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Sailak) ingurumen txosten estrategikoa argitaratua izan den egunkari ofizialari buruzko erreferentzia bat jasoko du Otxandioko S.A.U.I. ABC-ko 1. industrialdeko Plan Partzialaren Aldaketa onesteko publizitatean.

*Bosgarrena:* Ingurumen txosten estrategiko honek bere indarraldia eta eraginak galduko ditu, baldin eta, Bizkaiko Lurralde Historikokoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, Otxandioko S.A.U.I. ABC-ko 1. industrialdeko Plan Partzialaren Aldaketa onesten ez bada gehienez ere lau urteko epean, argitalpenetik aurrera zenbatzen hasita.

*Seigarrena:* 21/2013 Legearen 31.5. artikulua betez, ezingo da ingurumen txosten estrategiko honen kontrako errekurtsorik jarri. Edonola ere, plana edo programa onetsi duen xedapen orokorraren kontra bide judizialetik egokiak diren errekurtsioak jarri ahalko dira betiere, hala badagokio; edo, bestela, plana edo programa onesteko egintzaren kontra administrazio-bidean egokiak diren errekurtsioak, hala badagokio ere.

Bilbon, 2018ko urtarrilaren 18an.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala  
Zaintzeko foru diputatua  
ELENA UNZUETA TORRE